Hala eta guztiz, lehen idatzizko lekukotasunetatik hona igarotako mendeetan euskararen egitura fonologiko eta, hein batean, gramatikalaren aldaketa nahiko mugatua izan da. Grafien historiari erreparatuz gero, bistan da ez bokalen ez kontsonanteen sisteman ez dela ezer irauli (alegia, ez dela fonemen galera nahiz gehitze nabarmenik gertatu). Ereku morfologikoan bilakabide batzuk azpimarragarriak dira, hala nola kasu marken ordezkatzeko zenbait (*-rean* antzinako ablatibo singularraren morfema edo klitikoari, *etxerean* forman bezala, *-tik* marka gailentzen zaio, ik. *etxetik*), edo aoristoko nahiz geroaldiko aditz forma berezien (euskara zaharrean *nesan* ‘esan nuen’, *ethor cedin* ‘etorri zen’, *datorque* ‘etorriko da’,

10. 1167. urteko dokumentua, euskarari *Lingua Navarrorum* deitzen diona.
11. Euskara-islandierazko pidginarekin lotutako glosarioa (XVII. mendea).



11

estacusque ‘ez du ikusiko’) eta aditz paradigma sintetiko batzuen galera: Lazarragaren eskuizkribuan (ca. 1567-1602) erabiltzen diren *badafinçu* ‘ipintzen baduzu’, *ce nafinçu* ‘ez nazazu ipini’ edo *dafinquet* ‘ipiniko dut’ bezalako formak gaur egun ezinezkoak dira. Galtzapenen ondoan, artikularen gramatikalizazio prozesua (**har* urruneko erakuslean oinarri duena) funtsezko garapen diakronikoa da, ziur aski erromantzearen ereditutik abiatu zena. Ez dirudi, bestalderik, sintaxiak eraldaketa nabarmenik pairatu zuenik hizpide dugun garaian.

Alabaina, euskararen historia aurreko eboluzio faseen (testuetan lekukotua ez dauden) berreraiketarik errotik aldatzen du ikuspegia. Koldo Mitxelenak kontsonante *fortes* (tentsoak) eta *lenes* (ahulak) zeuzkan sistema fonologiko bat proposatu zuen aitzineuskararako (alegia, akitanierazko idazkunen aurretiko hizkuntza garairako). Ondoren, sistema hori euskalki historiko guztietan ezaguna den ahoskabe/ahostun egitura bilakatuko zen. Mitxelenaren berreraiketarik klasikoaren arabera honela antolatzen dira antzinako sistema haren unitate fonologikoak:

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

Aitzineuskararik ez zukeen, eskema horri jarraiki, **p* fonema *fortisa* (bigarrenkaria litzatekeena, hortaz, euskara historikoan) ez eta **m* sudurkaria ere (jatorri anitzekoa, tartean asimilazio fonologikoa eta mailegu lexikoa, besteak beste). Ezpainkari sudurkariaren gabezia irregulartasun tipologiko deigarria da. Bereizketa oinarritzotik kanpo

12. Euskal Herriko leinu protohistorikoen mapa.



verbales específicas tanto de aoristo como de futuro (vasco antiguo *nesan* ‘dije’, *ethor cedin* ‘vino’, *datorque* ‘vendrá’, *estacusque* ‘no verá’) y de algunos paradigmas sintéticos, como ocurre con *ipini/ifini* ‘poner, colocar’, que en el manuscrito de Lazarraga (ca. 1567-1602) presenta formas como *badafinçu* ‘(si) pones’, *ce nafinçu* ‘no me pongas/dejes’ o *dafinquet* ‘(lo) pondré’, hoy imposibles. Frente a las pérdidas, el proceso de gramaticalización del artículo a partir del deíctico distal **har* ‘aquel’ es una adquisición significativa, posiblemente inspirada en el modelo romance. La sintaxis, por su parte, no parece haber estado sometida durante este tiempo a grandes transformaciones.

12. Mapa de las tribus vascas protohistóricas.

Sin embargo, la reconstrucción de fases de evolución anteriores, no atestiguadas en la documentación histórica, cambia sustancialmente el panorama. Luis Michelena propuso para el protovasco (un estadio de lengua anterior a la época de las inscripciones aquitanas) un sistema consonántico basado estructuralmente en una oposición de fonemas *fortes* (o tensos) y *lenes* (débiles o laxos), que posteriormente evolucionó al sistema de consonantes sonoras y sordas que caracteriza a todos los dialectos históricos. La reconstrucción clásica de Michelena distribuye esas unidades fonológicas del siguiente modo:

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

El sistema protovasco no conocía, según este esquema, la labial *fortis* **p* (secundaria, en consecuencia, en el euskera histórico) ni tampoco la nasal **m* (atribuida a varios orígenes, entre ellos la asimilación fonológica y el préstamo léxico), ausencia que representa una llamativa anomalía tipológica. La aspiración /h/, que también formaba parte del consonantismo protovasco, era ajena a la oposición y en algunos casos resulta de la evolución de la nasal alveolar *lene* /n/.

Los argumentos que motivan la reconstrucción de un consonantismo primitivo de fonemas *fortes* y *lenes* parten de datos históricos en los que se observa la evolución de consonantes oclusivas geminadas en préstamos del latín, que incluso siendo sonoras se transforman en oclusivas sordas del euskera en posición interior de palabra: lat. *sabbatu* > *zapatu* ‘sábado’, lat. *abbas* > *apaiz* ‘cura’ (incluso del árabe *ad-durrāa* > *athorra* ‘camisa’). El cambio no tendría sentido fonológico en un sistema consonántico con oposición de voz (en lugar de tensión). Una interpretación alternativa, bien que cercana, es asociar la oposición a un contraste de consonantes simples y geminadas (como propuso en cierto momento Larry Trask). Intentos más recientes de reconstrucción interna han tratado de retrotraer el sistema protovasco de consonantes *fortes* y *lenes* a uno previo carente de tal oposición, con un número notablemente menor, por tanto, de fonemas.

En cuanto a sus aspectos gramaticales, la imagen del protovasco es en general más difusa. Se han sucedido varias hipótesis, de diverso grado de verosimilitud, acerca de la morfología y la sintaxis primitiva, a veces en aplicación de perspectivas teóricas poderosas como la de la gramaticalización. Las formas flexivas nominales presentan distintos estratos cronológicos, representados en las marcas simples y las compuestas. Todo parece indicar que el núcleo originario constaba de un conjunto reducido de formas, en contraste con las que hoy día tiene la lengua. También resulta claro que los paradigmas verbales surgieron


geratzen da aitzineuskararen kontsonante sistemaren parte ere bazen hasperena (/h/), zeina kasu jakin batzuetan /n/ sudurkari hobikari *lenearen* bilakabidearen emaitza baita.

Fonema *fortes* eta *lenes* deritzenen hasierako sistema kontsonantiko bat berreraikitze arrazoiak loturik daude historian lekukotutako bilakabide fonologiko jakin batzuekin: latinetik datozen maileguen jatorrizko herskari geminatuak, ahostunak izanda ere, herskari ahoskabe bihurtzen dira euskaraz hitzaren barruko kokaguneetan: lat. *sabbatu* > *zapatu*, lat. *abbas* > *apaiz* (are arabieratik hartutakoetan ere, ik. *ad-durrā'a* > *athorra*). Aldaketa horrek ez luke zentzu fonologikorik ahotsean (eta ez tentsioan) oinarritutako oposizioa duen sistema kontsonantiko baten barruan. Azalpen alternatibo baina hurbila da sistema hori kontsonante bakun eta geminatuaren arteko kontraste batekin parekatzen duena (Larry Traskek uneren batean egin bezala). Barne-berreraiketa saio berriago batzuen arabera, *fortes* eta *lenes* kontsonanteak dauzkan sistema halako bereizketarik egiten ez zuen egitura sinpleago batetik letorke, zeinean fonemen kopurua, ondorioz, askoz ere apalagoa zen.

Alderdi gramatikalari begiratu gero, aitzineuskararen irudia lausoagoa da orokorrean. Zenbait hipotesi garatu izan dira, egiantz maila ezberdinekoak, aitzineuskararen balizko morfologia eta sintaxiaren gainean, kasu batzuetan gramatikalizazioaren teoria bezalako tresna indartsuak erabiliz. Izenaren forma deklinatuek geruza kronologiko ezberdinak dituzte, marka bakun eta konposatuetan islatzen direnak. Jatorrizko forma kopurua mugatua zela dirudi, gaur egun euskarak duen egituratik urrun samar lego keena. Nahiko garbi dago, halaber, aditz paradigmak izenordainen eta aditzoinen aglutinaziotik sortu zirela, hurrengo adibideetan bezala: *nator* (< **ni-da-tor*, ni-orainaldia/inperfektiboa-erroa) edo *gatoz* (< **gu-da-tor-z*, gu-orainaldia/inperfektiboa-erroa-plurala).

Egitura sintaktikoari dagokionez, funtsezko aldakuntzaren bat berreraiki izan da batez ere hitzen oinarritzko hurrenkeran. Gaur egun hitz ordena SOV da, baina Ricardo Gómezek egindako proposamenaren arabera, aitzineuskararena VSO izan zitekeen. Halako hitz ordena batekin tipologikoki bat letorke euskarak duen NAdj egitura (alegia, adjektiboa izenaren ostean), historian zehar lekukotua dagoen bakarra. Hala ere, beste aukera batzuk ere posible dira. Sintaxiak aitzineuskararen berreraiketaren alderdi menturazkoena (baita espekulatiboena ere) izaten jarraitzen du, nolana ere.


13. Lergako inskripzioa (Nafarroa).



13. Inscripción de Lerga (Navarra).

de la aglutinación de pronombres y base verbal, como en *nator* 'vengo' (< **ni-da-tor*, yo-presente/imperfectivo-raíz) o *gatoz* 'venimos' (< **gu-da-tor-z*, nosotros-presente/imperfectivo-raíz-plural).

En su estructura sintáctica, la lengua vasca pudo haber sufrido alguna alteración de calado en su orden básico de palabras, que hoy día es SOV. Algunas propuestas, como la de Ricardo Gómez, atribuyen al protovasco un orden VSO, en cuyo marco sería congruente el orden NAdj (nombre-adjetivo) que hoy caracteriza al euskera y que es el único del que hay noticia a lo largo de su historia. Pero caben, desde luego, otras posibilidades. La sintaxis del protovasco sigue siendo la vertiente más aventurada y especulativa de su reconstrucción.



Euskalkien aniztasuna

Euskararen dialektoen arteko aldea oso nabarmena da. Europa osoan, agian beste eskualde txiki batean bakarrik, Eslovenian, da hain begi bistakoa dialektoen aniztasuna. Dialekto eta hizkeren arteko aldeaz ari garenean, gutxienez bi kontuz ari gara. Alde batetik, hizkera batzuk beste batzuei buruz bereizten dituzten ezaugarriez. Bestetik, dialektoen arteko urruntasun linguistikoaz. Azken hori dialektoen arteko elkar-ulermenaren arabera neurtzen da. Ulermen hori ez da berehalakoa, ez eta hurrik eman ere, euskalkien kasuan, bereziki mendebaleko eta ekialdeko muturretan. Aldaera linguistikoak, gainera, kilometro karratu gutxitan sumatzen dira. Euskaldunek kontatu ohi dute, ondoko herrira bizitzera joan bezain laster konturatzen direla beren jaioterriko eta auzo-herriko hizkeren arteko ezberdintasun nabarmenaz. Gaur egun, euskalkiez gairik aldaera estandarrek (*euskara batua*) eta euskalkiek, ahozko komunikaziorako erabiltzen direnek, elkar elikatzen dute.

Louis-Lucien Bonapartek, Napoleonen ilobak, 1863an, euskalkien lehen mapa prestatu zuen. Lehenago, beste idazle batzuek, Manuel Larramendik XVIII. mendean, adibidez, emana zuten euskalki ezberdinen berri. Bonaparteren lanetan zortzi euskalki aipatzen dira: gipuzkera, bizkaiera, iparraldeko nafarrera garaia, hegoaldeko nafarrera garaia, lapurtera, mendebaleko nafarrera behekoa, ekialdeko nafarrera behekoa eta zuberera. Euskalki bakoitzak bere barne-sailak dauzka: egile frantsesak 26 azpieuskalki eta 50 barietate lokal kontatu zituen guztira. Erronkaribarko azpieuskalkia (Bonapartek zubererarekin lotu zuena) XX. mendearen bukaeran desagertu zen, azken hiztuna, Fidela Bernat, 1991n hil baitzen. Historian zehar literaturan lau euskalki erabili

- 14.** Menéndez Pidalen mapa, ustez, euskarak historian zehar izan duen zabalpen handiena erakusten duena.
- 15.** 1961eko urtarrilaren 22an Errenterriako Herriko Etxean egindako ekitaldia, Koldo Mitxelena Euskaltzaindian sartzea zela-eta.

Diversidad dialectal

14. Mapa de Menéndez Pidal, que pretende representar el área de máxima extensión histórica de la lengua vasca.

15. Acto celebrado el 22 de enero de 1961 en el Ayuntamiento de Errenteria (Guipúzcoa) con motivo del ingreso de Luis Michelena en la Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia.

La lengua vasca presenta una diferenciación en dialectos muy pronunciada. En Europa probablemente solo otra región no muy extensa, Eslovenia, se caracteriza por un grado tan acusado de diversidad dialectal. Cuando hablamos de las diferencias entre dialectos y hablas, nos estamos refiriendo al menos a dos cuestiones: el conjunto de rasgos que individualiza unas hablas frente a otras, por un lado, y la distancia lingüística entre dialectos, medida en términos de comprensión mutua entre los hablantes de un dialecto y otro, algo que no está garantizado en el caso de los dialectos vascos, en especial entre sus extremos occidental y oriental. La variedad lingüística se concentra, además, en escasos kilómetros cuadrados: no es nada infrecuente el testimonio de vascohablantes que, tras mudarse a una población próxima, enseguida se percatan del notorio contraste que hay entre su habla natal y la de sus vecinos. Hoy en día, conviven la variedad supradialectal o estándar (*euskara batua*) y los dialectos, que se mantienen para la comunicación oral.

Louis-Lucien Bonaparte, sobrino de Napoleón, elaboró en 1863 un primer mapa dialectal del euskera. Anteriormente, otros autores, como Manuel de Larramendi en el siglo XVIII, habían constatado la existencia de dialectos diferenciados. En los trabajos de Bonaparte se señalan ocho dialectos: el guipuzcoano, el vizcaíno, el alto navarro septentrional, el alto navarro meridional, el labortano, el bajo navarro occidental, el bajo navarro oriental y el suletino. Cada dialecto se caracteriza, además, por su propia diferenciación interna: el autor francés contabilizó un total



dira nagusiki: ekialdetik mendebalera, zuberera, lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera.

Gaur egungo ikerketetan (bereziki, Koldo Zuazoren lanetan) proposatzen da euskalkiak bost taldetan sailkatzea: mendebalekoan, erdialdekoan, nafarrean, nafar-lapurtarrean eta zuberotarrean, hain zuzen ere. Gertatu ohi den bezala, ezaugarri linguistikoen arteko diferentziak elkarrengandik urrunen dauden eremuetan metatzen dira, hots, mendebaleko euskalkian (bizkaieran) eta zubereran (Euskal Herriko ekialdeko muturrean).

Diferentzia horietako batzuen nondik norakoak adierazteko, maila morfologikoan behintzat, komeni da euskalkien hiru eremu handietako adizkiak alderatzea (sailkapen orokor hori Bonapartek berak asmatu zuen):

Mendebaldekoa	Erdialdekoa	Ekialdekoa	Euskara Batua
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	<i>dut</i>
<i>dau</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	<i>du</i>
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	<i>dit</i>
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	<i>zuen</i>
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	<i>zion</i>
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	<i>egingo/eginen</i>

Adizkien zerrenda horrek mendebaleko eremuaren berezitasuna ikusarazten du, beste eremuekin bat-etortze eta antzekotasun gutxien baitu. Erdialdekoa eta ekialdekoa, ordea, elkarren antzekoagoak dira.

Ahaleginak egin izan dira euskalkien arteko banaketa idazle klasikoek aipatzen dituzten euskal leinu protohistorikoen garaia arte atzeratzeko (ikusit aurrerago). Hala ere, gaur egun, adostasuna dago berriagotzat jotzeko, ez Erdi Aroa baino lehenagokotzat. Halaxe pentsatzen zuen oraindik ere historiako euskalaririk handientzat jotzen denak, Koldo Mitxelenak, eta halaxe pentsatzen dute oraingo dialektologoen. Euskalkien eta Erdi Aroko elizbarrutien arteko mugak elkarrekin etorri ohi dira (Iruñea, Armentia-Calahorra, Baiona, Akize eta Oloroe ziren euskal elizbarrutietako egoitzak). Horrek ez du esan nahi VII. edo VIII. mendeak baino lehen euskara sistema unitario bat zenik, inolako diferentzia dialektalik gabea, baizik eta, besterik gabe, gaur egungo euskalki banaketa, gehienez ere, garai horretakoa dela, ez lehenagokoa.

de 26 subdialectos y 50 variedades locales. El subdialecto roncalés (que Bonaparte asociaba al suletino) desapareció a finales del siglo XX con el fallecimiento de su última hablante, Fidela Bernat, en 1991. Los dialectos que han conocido cultivo literario a lo largo de su historia han sido principalmente cuatro: de oriente a occidente, el suletino, el labortano, el gipuzcoano y el vizcaíno.

En investigaciones recientes (especialmente en los trabajos de Koldo Zuazo) se propone la clasificación de los dialectos vascos en cinco grupos: el dialecto occidental, el dialecto central, el navarro, el navarro-labortano y el suletino. La acumulación de diferencias en los rasgos lingüísticos se da, como suele ser la norma, en las áreas más alejadas entre sí, en este caso en el dialecto occidental (vizcaíno) y en el suletino (extremo oriental de la región vascofona).

Para ilustrar el alcance de algunas de esas diferencias, al menos en el plano morfológico, es conveniente comparar formas de las tres macroáreas dialectales, agrupación genérica, por cierto, que remonta al propio Bonaparte:

Occidental	Central	Oriental	Glosa
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	'(lo) he'
<i>dau-</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	'(lo) ha'
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	'me (lo) ha'
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	'(lo) hubo'
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	'se (lo) hubo'
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	part. fut. 'hacer'

Esta lista de formas verbales hace ver la singularidad del área occidental, la que menos coincidencias o proximidad presenta con el resto de áreas, mientras que la central y la oriental son a este respecto más parecidas entre sí.

A pesar de los intentos de hacer retrotraer las divisiones dialectales a las tribus vascas protohistóricas de las que nos hablan los autores clásicos (véase más adelante), hoy día existe, por lo general, acuerdo en considerarlas relativamente recientes, no anteriores a la Edad Media. Así lo creía quien sigue siendo el mayor vascofólogo de la historia, Luis Michelena, y así lo siguen estimando los dialectólogos actuales. Se da cierta correspondencia entre los límites dialectales y los de las diócesis medievales (Pamplona, Armentia-Calahorra, Bayona, Dax y Oloron). Eso, por otra parte, no quiere decir que con anterioridad a los siglos VII o VIII d. C. la lengua vasca fuera un sistema unitario, sin diferenciación dialectal alguna; simplemente indica que la base de la distribución actual proviene, como máximo, de aquella época, y no de antes.

Hizkuntzaren jatorria eta ideiak haren ahaideez

Miguel Unamunok, euskarari buruz 1884an irakurri zuen doktore-tesiaren epigrafean, Jean-Jacques Ampère filologo eta historialari frantsesaren aipamen bat sartu zuen. Horren arabera, «euskarak eta zeltak pribilegio bat partekatu dute: burutaziorik bitxieneen mintzagaia izan izana». Ordurako asko esana bazen, euskarari buruz hurrengo mendean garatuz joan diren hipotesiek, gaur egun, hizkuntza zelten gainetik jartzen dute oso, horien harreman linguistikoez, barnekoez zein kanpokoez, ez baitago inolako dudarik. Aitzitik, euskara genetikoki isolaturiko hizkuntza bat denez, neurririk ez duten edonolako usteetarako lur emankorretan gaude, bereziki isolamendu hori nahitaez zuzendu egin behar dela pentsatzen dutenen artean, posible izan edo ez.



Horregatik, euskararen jatorriaz denetariko iritziak adierazi izan dira (eta adierazten dira beti), gehienetan ez buru ez buztan ez dutenak. Egia esan, gutxi dira euskararekin alderatu ez diren familia linguistiko eta hizkuntza isolatuak, ustezko ahaidetasun-harremanen bila.

Argi eta garbi esan daitekeen gauza bakarra da gaur egungo euskara Akitaniako antzinako inskripzioetako hizkuntzarekin loturik dagoela. Inskripzio horiek K. o. I. eta III. mende bitartekoak dira eta 400 bat antropónimo eta 70 teónimo biltzen dituzte, Joakin Gorrotxategiren lanetan modu bereziki xehean aztertuak izan direnak. Akitaniera edo akitaniera-baskoiera, garai hartan, Pirinioez iparraldean ez ezik, hegoaldeko zenbait tokitan ere mintzatzen zen euskararen forma zahar bat izan zitekeen edo, bestela, euskaratik genetikoki oso gertu zegoen hizkuntza bat, bi sistemetan ageri diren egiturazko bat-etortzeek frogatu eta inskripzioak osatzen dituzten hitz batzuek adierazten duten bezala: *nescato* (cf. eusk. *neska*), *cison* (cf. *gizon*), *sembe* (cf. *seme*), *andere* (cf. *andere/andre*), *ombe* eta *umme* (cf. *ume*), baita *-tar/-thar* kidegoko atzizkia ere.

Akitanierarekiko lotura horretatik aparte, euskara hizkuntza enbor batekin batu nahi duten ahaidetasun-hipotesi guztiek ez ohi dute oinarri enpirikorik izan, ez eta zorrotasun metodologikorik ere. Sobera zehaztu gabe, bi talde historiko eratu daitezke euskarari buruzko ideiekin: hipotesi klasikoak deitu ditzakegunak, alde batetik, eta modernoagoak, bestetik.

Klasikoen artean, lehenbizi, eusko-iberismoa dago. Teoria horrek euskara iberierarekin lotzen du, hots, Hispaniako antzinako hizkuntza ez-indoeuroparrarekin (ustez, iberierazko *il-* eta euskarazko *hir-i/hur-i* hitzen artean dagoen bat-etortzetik abiaturik). Besteak beste, Wilhelm von Humboldttek sinetsi zuen teoria horretan XIX. mendean. Ideia horren aldekoen arabera, bi hizkuntzak enbor berekoak dira eta, ikuspegi horretatik, Antzinatean Iberiako Penintsulako eremu gehienean hitz egin zen hizkuntzaren azken aztarna izanzen litzateke euskara. Edonola ere, iberierazko inskripzioak euskarazko itzulpenen bidez ulertzeko irudimen handiz behin eta berriro eginiko ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira, dudarik gabe. Euskararen eta iberieraren arteko konparaziotik ondorioztatzen ahal diren formazko eta egiturazko antzekotasunak, gehienez ere, bi sistemen arteko harreman geografiko edo, hobe, kultural berezi batean pentsarazten

16. Donemiliaga Kukulako glosak (X-XI. mendeak).



Orígenes de la lengua e ideas acerca de su parentesco

En el epígrafe de su tesis doctoral sobre la lengua vasca, leída en 1884, Miguel de Unamuno insertó una cita del filólogo e historiador francés Jean-Jacques Ampère, para quien «el vascence ha compartido con el céltico el privilegio de haber sido materia de extravagancias incomparables». Si para entonces se había dicho mucho, las hipótesis sobre el origen del euskera que se han ido sucediendo a lo largo del siglo posterior sitúan hoy a la lengua vasca muy por delante de los idiomas celtas, sobre cuyas relaciones lingüísticas tanto internas como externas no cabe en la actualidad la menor duda. Por el contrario, en el caso de una lengua genéticamente aislada como es el euskera, el terreno para todo tipo de suposiciones no suele tener límites, sobre todo entre quienes creen que ese aislamiento ha de ser necesariamente corregido, se pueda o no.

Por ello, sobre los orígenes del euskera se han vertido y se siguen vertiendo opiniones absolutamente variopintas y casi siempre descabelladas. De hecho, pocas serán las familias lingüísticas y las lenguas aisladas con las que el euskera aún no haya sido comparado en pos de presuntas relaciones de parentesco.

Lo único que puede afirmarse con certeza hoy día es el vínculo que une al euskera actual con la lengua de las antiguas inscripciones aquitanas, fechadas entre los siglos I y III d. C. y que contienen unos 400 antropónimos y en torno a 70 teónimos, estudiados con especial detalle en los trabajos de Joaquín Gorrochategui. Esa lengua aquitana o aquitano-vascona, empleada en su época tanto al norte como en partes del sur de los Pirineos, pudo ser sencillamente una forma antigua de euskera o cuanto menos una lengua genéticamente muy próxima a esta, según atestiguan las correspondencias



digu. Halako zerbait egon daiteke hizkuntza-egituren hein bateko hurbilketaren atzean.

Beste hipotesi klasiko samar batek euskara Kaukasoko hizkuntzen multzoan biltzen du. Hizkuntzalari askok (horietariko batzuk prestigiodunak, hala nola, René Lafon), XX. mendean ahalegin nabarmenak egin zituzten euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura frogatzeko. Antzekotasun lexiko batzuk eta gramatikalen bat aurkitu ziren Kaukasoko talde batzuekin zein besteekin, baina lotura genetikorako saio horrek bi arazo ditu. Alde batetik, antzekotasunen portzentajeak –batzuetan bat-etortzeenak– ez du behin ere gainditzen halabeharrezkotzat jotzen den muga (oso antzeko emaitzak lortzen dira hizkuntza uraldar edo afro-asiarrekin alderatuz gero). Bestaldetik, ez da batere frogatu Kaukasoko hizkuntza guztiak elkarri lotuak daudenik, hori bakarrik ziurtzat jotzen baita georgiera, mingreliera, lazera eta svanera biltzen dituen talde kartveliarraren kasuan. Areago, talde kartveliarrarekiko konparazioak oso azaleko emaitzak ematen ditu, balio zientifiko gutxikoak. Izan ere, haren aldekoek, maiz, uko egin diote denek erabili beharreko arauen aplikazioari, horien artean, bat-etortze fonologiko erregularren identifikazioari, hizkuntzen arteko ahaidetasunak frogatu nahi badira. Adibidez, georgiera tipologia aktiboko hizkuntza (eta ergatiboduna) delako, horrek ez du esan nahi litekeena dela hura euskararen ahaidea izatea. Halaber, egitura nominatibo-akusatiboko hizkuntzak ez daude nahitaez elkarri lotuak. Familia berean (indoeuropar hizkuntzengan, kasu) hizkuntza ergatibodunak (hindia eta kurduera) eta ergatiborik gabeko hizkuntzak (ia gainerako guztiak) egon daitezke.

Bide egin duten beste iritzi batzuek bereberearekin edo hizkuntza finougriarrekin lotzen dute euskara. Azken hamarkadetan, euskararekin ustez lotura genetikoa dutenen zerrendari hautagai asko gehitu zaizkio, hala nola, txinera, hizkuntza paleosiberiarrak, kikuyua (Kenian hitz egiten den hizkuntza), antzinako piktoen mintzaira edo Iparraldeko Amerikako hizkuntza batzuek osaturiko na-dene makrofamilia. Proposamen hauetarik, batek ere ez du gutxieneko sendotasun metodologikorik seriotan hartua izateko.

17. Vista de los monasterios de Suso y Yuso (en San Millán de la Cogolla).

17. Susoko eta Yusoko monasterioen ikuspegia (Donemiliaga Kukulan).

estructurales que se aprecian en ambos sistemas y como muestran varias de las palabras que integran las inscripciones: *nescato* 'niña' (cf. vasc. *neska* 'chica'), *cison* 'hombre' (cf. *gizon* 'hombre'), *sembe* 'hijo' (cf. *seme* 'hijo'), *andere* 'mujer' (cf. *andere/andre* 'señora'), *ombe* y *umme* 'crío, -a' (cf. *ume* 'crío, -a'), vid. también el sufijo de pertenencia *-tar/-thar*.

Al margen de esta conexión con el aquitano, el conjunto de hipótesis de parentesco que tratan de asociar la lengua vasca a un tronco lingüístico determinado carece, en general, tanto de fundamento empírico como de rigor metodológico. Aunque sea solo a beneficio de inventario se pueden establecer dos grupos históricos con las ideas que han circulado en torno a la lengua vasca: las que podemos denominar hipótesis clásicas, por un lado, y las más modernas, por otro.

Entre las clásicas se encuentra, en primer lugar, el vasco-iberismo, teoría –profesada, entre otros, por Wilhelm von Humboldt en el siglo XIX– que vincula la lengua vasca con el ibérico, antigua lengua no indoeuropea de Hispania (a partir de correspondencias como la que supuestamente se da entre ibérico *il-* 'ciudad' y vasco *hir-i/hur-i* 'idem'). Según los defensores de esta idea, ambas lenguas pertenecerían a un tronco lingüístico común e incluso el euskera sería, desde esta perspectiva, el último vestigio de la lengua que se habló en la antigüedad en buena parte de la Península Ibérica. En cualquier caso, los reiterados e imaginativos intentos por comprender las inscripciones ibéricas mediante traducciones que recurren al euskera han sido claramente en vano. De las similitudes formales y estructurales que pueden extraerse de la comparación entre las lenguas vasca e ibérica se podría deducir, en todo caso, una especial relación geográfica o incluso más bien cultural entre ambos sistemas que pudo derivar precisamente en cierta aproximación mutua, siempre parcial, de sus estructuras lingüísticas.

Otra de las hipótesis relativamente clásicas es la que integra el euskera en el conjunto caucásico de lenguas. Varios lingüistas, algunos de prestigio (como René Lafon), dedicaron a lo largo del siglo XX considerables esfuerzos encaminados a probar la relación entre la lengua vasca y las caucásicas. Se hallaron semejanzas léxicas y alguna que otra gramatical con unos grupos caucásicos y otros, pero el problema con este intento de conexión genética es doble: por una parte, el porcentaje de semejanzas –en ocasiones coincidencias– no supera en ningún caso el umbral de lo que puede considerarse absolutamente accidental (resultados muy parecidos se obtienen de la comparación con lenguas urálicas o afro-asiáticas); por otra, no está ni mucho menos demostrado que las lenguas caucásicas, todas ellas, estén emparentadas entre sí, algo que solo es seguro en el caso del grupo kartvélico (georgiano, mingrelia, lazo y svano). Pero incluso la comparación con el grupo exclusivamente kartvélico no deja de arrojar unos resultados que son muy superficiales y de escaso rigor científico, dado que sus practicantes han renunciado en general a la aplicación de las reglas universalmente aceptadas, entre ellas la identificación de correspondencias fonológicas regulares, para la demostración de parentescos lingüísticos. El hecho de que el georgiano, por ejemplo, sea una lengua de tipología activa (y con caso ergativo) no hace genéticamente probable su aproximación a la lengua vasca, de la misma manera en que las lenguas de estructura nominativo-acusativa no están solo por ello emparentadas entre sí. En una misma familia (caso de la indoeuropea) pueden coexistir, por otra parte, lenguas ergativas (como el hindi y el kurdo) y lenguas no ergativas (casi todas las demás).

Azken aldi honetan, nazioartean entzute handia duen hizkuntzalari baten (Theo Vennemann) eskutik, beste hipotesi bat gorpuztu da, ez ahaidetasunaz, euskararen jatorriaz baizik. Oso hipotesi eztabaidagarria da, baina, batera, oso erakargarria adituak ez direnentzat. Vennemannek antzinako Europako toki-izenak aztertu ditu eta, haren arabera, bertako lehen bizilagunen hizkuntza euskararen forma zahar-zahar bat izan liteke, *Proto-Vasconic* deritzona. Euskara Europaren jatorriarekin lotzeko ideia berria ez bada ere, Vennemannen eta haren kolaboratzaileen metodoa bada. Izan ere, tokien eta ibaien izenei buruzko burutazio etimologikoak eta populazio genetikaren datuak konbinatzen ditu. Arazo nagusia hau da: *antzinako europa* delakoaz duen ikuspegia ezbaian jarri dela, bai indoeuropar hizkuntzetako adituen aldetik, bai euskalarien aldetik ere eta, gainera, datu genetikoa, hizkuntza frogarik gabe, ez dira batera erabakigarriak.

Azkenik, Juliette Blevinsek, nazioartean izena duen beste hizkuntzalari batek, aitzineuskararen eta aitzinindoeuoperaren arteko lotura genetikoa aldarrikatu du. Haren aburuz, bi hizkuntza horiek enbor bereko adarrak izan litezke. Proposamen erradikala da, eta oso eztabaidagarria, aitzineuskararen ustezko ezaugarri fonologikoen berreraiketa alternatibo eta tarteka oso berezi batean oinarritzen dena.

18. Joana Albretekoa, Nafarroako erregina (1555-1572).



18. Juana de Albret, reina de Navarra (1555-1572).

Otras suposiciones con cierta trayectoria son las que asocian el origen de la lengua vasca al bereber o a las lenguas fino-ugrias. En las últimas décadas se han añadido numerosos candidatos a la lista de vínculos supuestamente genéticos del euskera con otras lenguas, desde el chino o las lenguas paleosiberianas al kikuyu (lengua hablada en Kenia), pasando por el idioma de los antiguos pictos o la macrofamilia na-dene de lenguas americanas septentrionales. Ninguna de estas propuestas cuenta con un mínimo de solidez metodológica para poder ser tomadas en serio.

En años recientes ha ido tomando cuerpo, de la mano de un lingüista internacionalmente reconocido (Theo Vennemann), una hipótesis no de parentesco, sino acerca del origen de la lengua vasca que ha resultado sumamente polémica, aunque al mismo tiempo atractiva para los no especialistas. Según el análisis de los topónimos de la antigua Europa que realiza Vennemann, la lengua de sus primeros pobladores sería una forma remota de euskera, a la que denomina *Proto-Vasconic*. Aunque la idea de relacionar la lengua vasca con los orígenes de Europa no es nueva, el método de Vennemann y sus colaboradores sí lo es, puesto que combina especulación etimológica sobre formas toponímicas e hidronímicas con datos de la genética de poblaciones. El problema principal es que su visión del así llamado antiguo europeo ha sido seriamente puesta en cuestión tanto desde el flanco indoeuropeo como desde el eusquérico y que, además, los datos genéticos, sin el sustento de la evidencia lingüística, no resultan en modo alguno determinantes.

Finalmente, en los últimos años Juliette Blevins –otra lingüista de prestigio internacional– ha propuesto la existencia de una conexión genética entre el protovasco y el protoindoeuropeo, lenguas que serían posiblemente ramas de un tronco común. Se trata de una propuesta radical y profundamente controvertida, apoyada en una reconstrucción alternativa y en ocasiones muy personal de varios de los rasgos fonológicos que supuestamente caracterizaron en su día al protovasco.

En conclusión, no hay razones empíricas sólidas para pensar que la lengua vasca tenga relación de parentesco con otros sistemas más allá del antiguo aquitano, ni tampoco para mover su origen geográfico a una región demasiado alejada de la que sus hablantes ocupan en la actualidad. Desde el punto de vista cronológico, no contamos, desde luego, con prueba alguna que permita remontar su origen, pese a lo que se haya dicho en alguna ocasión, nada menos que al Paleolítico superior (Edad de Piedra).

En cuanto a los contactos del euskera con las lenguas de su entorno, tradicionalmente se asume su influencia, aunque limitada, en el proceso de formación de los romances navarro, riojano, gascón e incluso –aquí con muchas más dudas– del castellano, especialmente en lo que respecta a los terrenos fonológico y léxico. Entre las palabras de origen vasco seguro en las lenguas romances pueden mencionarse, por ejemplo, *izquierdo* (< *ezkerr(a)* ‘izquierdo,-a’) y *chatarra* (< *zattarr(a)* ‘andrajó’) en español. Por su parte, la lengua vasca ha ido incorporando a su estructura gramatical y léxica numerosos rasgos romances, en lo que ha sido una relación de influjo mutuo, con alternancias por períodos históricos, aunque con predominio indudable de los préstamos léxicos del latín y del romance en euskera. También en su estructura gramatical ha replicado la lengua vasca algunos rasgos originarios de los sistemas romances, entre ellos la creación de los artículos, la tendencia a la pérdida de la distinción de los casos instrumental y comitativo o la marcación diferencial del objeto –mediante marcas dativas– cuando este es animado (en algunas variedades de la lengua).

Por otra parte, la impronta del vascuence se dejó sentir en siglos pasados en sendos *pidgins* (códigos mixtos) de Islandia y la costa oriental de Canadá,

Laburbidurik, ez dago arrazoi enpiriko sendorik pentsatzeko euskarak ahaidetasun-harremanak dituela beste sistema batzuekin, antzinako akitanieraz gain, ez eta, haren jatorria euskaldunak gaur egun bizi direneko eremutik asko urruntzeko ere. Ikuspegi kronologikotik, ez daukagu, bistan da, inolako frogarik euskararen jatorria nora eta Goi Paleolitara (hots, Harri Arora) eramateko, inoiz halaxe esan den arren.

Euskararen eta haren inguruko hizkuntzen arteko loturari dagokionez, Nafarroako, Errioxako, Gaskoiniako eta, askoz duda gehiagorekin, Gaztelako erromantzeak osatzeko prozesuan eragin mugatua izan zuela pentsatu izan da, gehienbat fonologian eta lexikoan. Erromantzeek euskaratik hartutako hitz seguruen artean gaztelaniazko *izquierdo* (< *ezkerr(a)*) edo *chatarra* (< *zatarr(a)*) daude, esaterako. Bere aldetik, euskarak erromantzeen ezaugarri asko bildu ditu bere egitura gramatikalean eta lexikoan. Elkarrenganako eragineko harreman bat izan da. Historiako garaien arabera, eragin horiek txandakatu egin dira, baina ez dago dudarik euskarak latinari eta hizkuntza erromanikoei harturiko mailegu lexikoak nagusi direla. Egitura gramatikalean ere, euskarak hainbat ezaugarri mailegatu ditu erromantzeekiko ukipenaren ondorioz, tartean artikuluen sorrera, kasu instrumentalaren eta komitatiboaren arteko bereizketaren galerarako joera edo objektuaren markaketa berezitua –datibozko marken bidez– objektua biziduna denean (hizkera batzuetan).

Orobat, pasa diren mendeetan, euskararen aztarna *pidgin* edo kode misto banatan igartzen da, Islandian eta Kanadako ekialdeko kostan, Euskal Herriko baleazaleek eramanik, eta, ia gaurdaino, Galiziako, Asturietako eta Gaztelaren iparraldeko hizkeretan (*mascuence*, *xiriga*, eta abarretan) eta *motxaile* edo ijito euskaldunen *erromintxela* hizkuntzan ere bai. Euskarazko bi hitz gutxienez (*akelarre* eta *silueta*, *zilueta/zulueta*-tik datorrena) mendebaleko hizkuntza askoren lexikoaren osagaiak dira.

19. Esteban Garibai
(1533-1599).

19. Esteban de Garibay
(1533-1599).

utilizados por balleneros vascos, y casi hasta nuestros días en las jergas de empleados y canteros de Galicia, Asturias y Norte de Castilla (*mascuence*, *xiriga*, etcétera), así como en el *erromintxela*, la lengua de los *motxaileak* o gitanos vascos. Al menos dos palabras de origen eusquérico (*akelarre*, de *akelarre*, 'prado del macho cabrío', y *silueta*, procedente en última instancia del término vasco *zilueta/zulueta* 'lugar con oquedades') integran el léxico de muchos idiomas occidentales.




Euskararen muga historikoak

Aurreko atalean azaldu den bezala, euskara antzinako iberieraren hondar bat zela pentsatzeko behar adina froga ez daude eta, beraz, ezin da ondorioztatu, erromatarrek etorri baino lehen, Portugal eta Espainia osoan hitz egiten zela. Aitzitik, baditugu argumentuak euskararen eta gaur egungo Frantziaren hego-mendebalean mintzatzen zen akitanieraren arteko harreman genetikoaren alde jotzeko. Deigarria bada ere, mintzaira horretako ia inskripzio guztiak gaur egun euskaraz mintzatzen deneko lurraldetik urrunen dagoen Akitaniaren partean aurkitu dira. Hala ere, pentsatzen ahal dugu euskara Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan ere hitz egiten zela. Hiru herrialde horiek Novempopulaniaren barruan zeuden III. mendean.

Duela bi mila urte, gaur egungo Euskal Herrian zazpi leinu edo *gens* bizi ziren. Baskoiak Nafarroan eta Gipuzkoako, Huescako, Zaragozako eta

20. Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca* (1881).

21. Leizarragaren Testamentu Berria (1571).



20



21

Límites históricos del euskera

Tal como se ha expuesto en el apartado anterior, no existen elementos suficientes para suponer que el vascuence sea un resto del antiguo ibérico y, por lo tanto, no se puede concluir que antes de la llegada de los romanos se hablara en la totalidad de los actuales territorios de Portugal y España. En cambio, sí tenemos argumentos para definir una relación genética entre el euskera y el aquitano, hablado en el sudoeste de la actual Francia. Curiosamente, casi todas las inscripciones en esa lengua se han conservado en la parte de Aquitania más alejada del territorio hoy vascófono. Podemos suponer, sin embargo, que el euskera también era hablado en Labort, Baja Navarra y Sola, que en el siglo III estaban incluidas en la denominada Novempopulania.

Hace dos mil años, el territorio de la actual Vasconia estaba poblado por siete tribus o *gentes*. Los vascones ocupaban Navarra y sendas porciones de las provincias de Guipúzcoa, Huesca, Zaragoza y Logroño. Los várdulos, la mayor parte de Guipúzcoa y una franja de Álava. Los caristios la mayor

20. *Peru Abarca*, de Juan Antonio Moguel (1881).

21. Nuevo Testamento de Leizarraga (1571).

Logroñoeko probintzien zati banatan zeuden. Barduliarrak, Gipuzkoaren zatirik handiengan eta Arabako lur-zerrenda batean. Karistiarrak Bizkaiaren eta Arabaren gehiengan eta Gipuzkoaren mendebalean. Autrigoiak, Bizkaiko Enkartazioetan eta Arabaren, Santanderren eta Burgosen zatietan. Errioxa, zentzu zabalean ulertua, Arabaren, Nafarroaren eta Burgosen zati bana barne, beroiena zen. Lapurdi-Baxenabarreetan, eta Landen hegoaldean, gero Novempopulaniako populu bat, tarbeliarrak, ziren nagusi. Eta Zuberoan, beste bat, sibilateak, herrialde honi izena eman ziotenak.

Hasiera batean baztertzekoa izan ez badadi ere, gaur egun, eskura dauzkagun iturri literario, arkeologiko eta linguistikoa ez dira aski «baskoitze berantiarra» izeneko hipotesiari eusteko. XVII. mendean, Allande Oihenart zuberotar historialariak, Akitaniako inskripzioak ez zezagutzanak, pentsatu zuen baskoia zirela Antzinateko leinu euskaldun bakarra eta, Erdi Aroaren hasieran, beste leinuen lurraldeak kolonizatu zituztela. XX. mendean, Adolf Schultenek lagundu zuen Oihenarten tesia zabaltzen, Joan Biclarkoa eta Gregorio Tourskoa Erdi Aro Garaiko kronisten pasarte batzuen interpretazio behartu batez baliatuz. Claudio Sánchez-Albornozek nafarrentzat jatorri etniko diferente bat proposatu zuen, arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak berandu euskaldunduriko indoeuropar herriak zirelakoan. Hala ere, zaila da ulertzen nola inposatu ahal izan zieten beren hizkuntza baskoiek, Euskal Herriko leinu protohistorikoetan erromatartuena osatzen zutenek, beste *gens*-ei. Izan ere, gaztelaniazko *vascongado* hitzak ez du 'baskoitua' esan nahi, baskoien zabalpenaren aldeko batzuek adierazi ohi duten bezala, 'euskalduna' baizik: XIX. mendea arte nafar gehienak *vascongadoak* ziren eta arabar eta enkartau asko ez ziren *vascongadoak*, *romanzadoak* ('erromantze-hiztunak') edo *latinadoak* ('latin-hiztunak') baizik.

Zinez deigarria da Hego Euskal Herriko leinuen herrien izen gehienak, Ptolomeok II. mendean bildu zituenak, ezin direla interpretatu euskararen bidez. Salbuespen batzuk daude, denak baskoien eremuan, honako hauek: *Pompaelo* eta *Andelos* (bi kasuetan, bigarren osagaiak *(h)il dirudi, hots, 'hiri': Iruñea eta Andion, Mendigorritik gertu, hurrenez hurren) eta *Oiasso* ('oihan + zu': Irun/Oiartzun). Ptolomeoren tauletako euskarazko toki-izenen urritasunak Oihenarten kontrakoa pentsarazi die egile batzuei, horien artean, Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann eta Francisco Villar (oso hipotesi iradokigarria, baina zuberotarrarena bezain eztabaidagarria), alegia, historia aurreko garaian euskara bakarrik Akitanian hitz egiten zela eta hortik Pirinioez hegoaldera ekarri zela, gure aroaren aurreko I. mendetik gure aroko VII. mendera bitarte. Lergako inskripzioa, Zangozako merindadearen hegoaldean, Nafarroan, II. edo III. mendekoa, euskararen antzeko hizkuntza bateko pertsona-izenak biltzen ditu eta, beraz, beste pertsona-izen batzuekin eta *Pompaelo*, *Andelos* eta *Oiasso* toki-izenekin batera, ustezko akitaniar kolonizazioaren lehen adibideetako bat izan liteke.


Baditugu, beraz, froga epigrafikoa, duela bi mila urte gaur egungo euskararen aurrekaria den hizkuntza bat Akitanian eta, behintzat, Nafarroako toki batzuetan hitz egiten zela adierazten dutenak, eta zantzu batzuk, pertsona eta jainko-izenak barne, barduliarren eta karistiarren lurraldeei buruz gauza bera, akaso tentu gehiagoz, pentsarazten digutenak. Baina austrigoien eta baskoien beren errealitatea are nahasiagoa da, ondoren azaltzen saiatuko garen bezala (ez gara beroiez luzatuko, garbi baitago zeltak zirela).

parte de Vizcaya y Álava y el occidente de Guipúzcoa. Los austrigones, las Encartaciones de Vizcaya y fragmentos de las provincias de Álava, Santander y Burgos. La Rioja en sentido amplio, incluyendo porciones de Álava, Navarra y Burgos, pertenecía a los berones. En Labort y en la Baja Navarra, además de en el sur de las Landas, habitaba un pueblo de la futura Novempopulania, los tarbelos. Y en Sola, otro de ellos, los sibilates, cuyo nombre está relacionado con el de este territorio.

Aunque en principio no sería descartable, hoy por hoy, las fuentes literarias, arqueológicas y lingüísticas no resultan suficientes para postular la hipótesis de la «vasconización tardía». En el siglo XVII, el historiador suletino Arnould Oihénart, quien desconocía la existencia de las inscripciones aquitanas, pensó que los vascones eran la única tribu vascofona en la Antigüedad y dedujo que a principios de la Edad Media colonizaron los territorios de las demás tribus. Ya en el siglo XX, Adolf Schulten contribuyó a difundir la tesis de Oihénart, valiéndose para ello de una interpretación forzada de fragmentos de los cronistas altomedievales Juan de Biclario y Gregorio de Tours. Claudio Sánchez-Albornoz llegó incluso a defender un origen étnico distinto de los navarros respecto a alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos, que serían pueblos indoeuropeos vasquizados tardíamente. Sin embargo, resulta difícil de explicar cómo los vascones, los más romanizados de entre las tribus vascas protohistóricas, pudieron imponer su lengua a las demás *gentes*. Por cierto, la palabra «vascongado» no significa 'vasconizado' como suelen aducir algunos partidarios de la expansión vascona, sino simplemente 'vascófono': hasta el siglo XIX la mayoría de los navarros eran «vascongados» y muchos alaveses y encartados no eran «vascongados», sino «romanzados» ('hablantes de romance') o «latinados» ('hablantes de latín').

Llama ciertamente la atención que la mayoría de los nombres de las poblaciones de las tribus vascas peninsulares que nos transmite Ptolomeo en el siglo II sean de imposible interpretación por medio del euskera. Entre las excepciones, todas en territorio vascón, se encuentran las siguientes: *Pompaelo* y *Andelos* (cuyo segundo elemento en ambos casos parece ser *(h)il 'ciudad': Pamplona y Andión, cerca de Mendigorriá, respectivamente) y *Oiasso* ('lugar de bosques': Irun/Oiartzun). Esa escasez de topónimos eusquéricos en las tablas de Ptolomeo ha llevado a algunos autores, como Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann y Francisco Villar a la suposición contraria a la de Oihénart, tan sugerente y, a la vez, tan discutible como la del autor suletino: que en época protohistórica el euskera solo se hablaba en Aquitania, de donde se importó al sur de los Pirineos, en un período que se extiende entre el siglo I antes de nuestra era y el VII de nuestra era. La inscripción de Lerga, al sur de la merindad de Sangüesa, en Navarra, que data del siglo II o III, recoge unos antropónimos de una lengua identificada como eusquérica, por lo que, junto a algunos otros antropónimos y los nombres de *Pompaelo*, *Andelos* y *Oiasso*, sería una de las primeras manifestaciones de la supuesta colonización aquitana.

Si bien tenemos pruebas epigráficas de que una lengua antecesora del actual euskera era hablada hace dos mil años en Aquitania y al menos en partes de Navarra, y también contamos con indicios (en forma de antropónimos y teónimos) que permiten suponer, tal vez con mayor cautela, una situación similar en el territorio de várdulos y caristios, más compleja resulta la realidad de los austrigones y de los mismos vascones, como intentaremos explicar a continuación (no nos detendremos en los berones porque no hay duda sobre su origen celta).



22. Antoine d'Abbadie d'Arrast (1810-1897).

Oso litekeena da autrigoiek indoeuropar jatorria izatea, zeltikoa, zehatzagoak izanez gero. Enkartazioen ekialdeko partean euskarazko toponimia badago, baina mendebalekoan ez dago ia-ia. Muga linguistikoa Koltza eta Serantes mendietako gailurren arteko alegiazko lerro batetik doa eta, gutxi gorabehera, Pisoracatik Flaviobrigara zihoan erromatar galtzadarekin bat egiten du. Halaber, Arabaren mendebaleko muturrean (Artziniegan, Gaubean eta Añanan) eta Trebiñurenekoan, autrigoien lurraldean, euskarazko toki-izenak oso-oso gutxi dira.

Baskoiei dagokienez, Nafarroaren iparraldeko bi herenetan, euskarazko toponimia badago, ez, ordea, hegoaldekoan. Koldo Mitxelenak adierazi zuen bezala, baskoi guztiak ez ziren euskaldunak eta euskaldun guztiak ez ziren baskoiak. Euskararen muga historikoa, gutxi gorabehera, Tafallan dago, Mendialdeak eta Erriberak, Nafarroako bi eskualde tradizionalak, bat egiten duten tokitik oso gertu. Lerro horretaz hegoaldean aipatzea merezi duten salbuespen bakarrak honako bi hauek dira: Murillo el Cuende eta Zarrakasteluko eremua, non Erdi Aroaren bukaera arte euskaraz mintzatu baitzen eta euskarazko toponimiak hein batean erronkariar eta zaraitzuar artzainek Bardeara egiten zuten

22. Anton Abadia-Ürrüstoi (1810-1897).

Resulta verosímil que los autrigones fueran un pueblo de raigambre indoeuropea, más concretamente céltica. Existe toponimia vasca en la parte oriental de las Encartaciones, pero en su parte occidental la toponimia eusquérica es nula o despreciable. La frontera lingüística transcurre a lo largo de una línea imaginaria entre las cumbres de Colisa y Serantes, coincidiendo aproximadamente con la calzada romana de Pisoraca a Flaviobriga. Igualmente, en la zona más occidental de Álava (Artziniega, Valdegovía y Añana) y de Treviño, también territorio autrigón, los topónimos vascos son muy minoritarios.

Respecto a los vascones, existe toponimia vasca en los dos tercios septentrionales de la actual Navarra, no así en el meridional. Como sentenció Luis Michelena, ni todos los vascones eran vascófonos, ni todos los vascófonos eran vascones. El límite histórico del euskera se encuentra más o menos a la altura de Tafalla, que coincide casi exactamente con el límite entre la Montaña y la Ribera, las dos comarcas tradicionales de Navarra. Las únicas excepciones reseñables al sur de esa línea son la zona de Murillo el Cuende y Carcastillo, que fue vascófona hasta finales de la Edad Media y cuya toponimia eusquérica tal vez se ha mantenido en parte debido a la trashumancia de pastores roncaleses y salacencos hacia la Bardena, y la zona de Lazagurría, Sesma y Mendavia, donde perdura una toponimia eusquérica muy residual, que podría ser continuación de la de la Rioja.

